

2. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

EUKALIPTOAREN LANDAKETARI, MUGAK

Euskal Herriko basoetan paisaia-aldaketa sumatu da azken urteetan: eukaliptoek hartu dute pinudien tokia. Pinuan xingola marroiaren gaixotasuna agertu zenetik, ia 10.000 hektarea *insignis* pinudi **6** dituzte Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta horiek zeuden lursailen erdiak inguru eukaliptoz bete dituzte. Nagusiki, Araban eta Bizkaian hedatu da gehien espezie hori. **7** hori ikusita, eta hainbat elkartek egindako presioaren ondorioz, neurriak hartu dituzte lurralde batzuek. Bizkaiko Foru Aldundia izan da horietako bat: herrialdean eukalipto mugatzea eta bertako espezieak jartzea bultzatuko du; eta, **8**, jabetza pribatuko basoak erosteko plan bat antolatu duela **9** du. «Lehentasunezkoztat» jo du proiektua.

Aldundiak **10** du ez dituela diruz laguntzen eukalipto-landaketak duela hamabi urtetik hona, eta, neurri horri etorkizunean ere eutsiko diola nabarmentzeaz gain, orain «beste pauso bat» emango duela adierazi du. «Urrats gehiago egingo dira eukaliptoaren hedapena **11** eta, aldi berean, basoak espezie autoktonoekin berritzeko». Basogintza babesteko ezarriko duen planak bi **12** nagusi izango ditu. Batetik, diruz lagunduko du basoak modu jasangarriagoan kudeatzeko metodoak aplikatzea, baso autoktonoak kontserbatzea eta baso autoktonoak landatzea; eta, **13**, ez ditu finantzatzeko ondoren eukalipto landatzeko egiten diren **14** sanitarioak.

Gainera, jabetza pribatuko basoak erosteko proiektu bat ere **15** du, «eskualde guztietan baso-berritze eta baso-lehengoratzeko proiektuak **16**». Nabarmendu du erosketak «definitzen» ari dela, **17**, aurreratu duenez, lau milioi euro jarriko ditu planerako.

Eukaliptoak **18** eragin ditzake bioaniztasunean eta ingurumenean, eta horrek kezka sortu du. Bizkaiko Aldundiak azaldu du ez dagoela lur pribatuetan eukalipto landatzeko mugak ezartzea babesten duen **19** juridikorik edo arauemailerik. «Praktikan ia ezinezkoa da partikular bati bere lurretan eukalipto landatzea debekatzea». **20**, Espainiako araudian eukalipto ez dago jasota espezie exotiko inbaditzaile gisa.

21, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere egin du urratsa. Herrialde horretan ez dago hain **22** eukalipto, pinudiak ordezkatzeko beste espezie batzuk **23** dituelako eta «prebentzioz» jokatu nahi izan duelako. Hala, basoko espezieak mozteko gutxieneko tartea hogeita bost urtera luzatzea erabaki du —eukaliptoak mozteko zikloa beste espezie batzuen baino laburragoa da—. Adierazi duenez, **24** da «basoen kudeaketa jasangarriaren eredu baten alde» lan egitea. Neurria **25** sartu ostean egiten diren landaketei eragingo die arauak; orain arte, hamar urterekin moztu zitezkeen.

BASTIDA J. *Berria*. 2021eko maiatzaren 2a. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

6. a) bildu
b) erein
c) bota
d) hedatu

7. a) Eskaera
b) Joera
c) Lehia
d) Harrera

8. a) alderantziz
b) ezinbestez
c) badaezpada
d) horretarako

9. a) hunkitu
b) iragarri
c) ukatu
d) atzeratu

10. a) gogorarazi
b) isilarazi
c) galarazi
d) entzunarazi

11. a) ohartarazteko
b) garbiarazteko
c) geldiarazteko
d) agerrarazteko

12. a) aurkikuntza
b) prestakuntza
c) berrikuntza
d) sorkuntza

13. a) bestetik
b) baizik
c) alderantziz
d) ordea

14. a) mozketa
b) hizketa
c) zozketa
d) sariketa

15. a) mugatuko
b) abiatuko
c) eragotziko
d) aldenduko

16. a) astintzeko
b) ordezkatzeko
c) garatzeko
d) arakatzeko

17. a) azkenik
b) baina
c) ostera
d) berez

18. a) urraketak
b) onurak
c) ahuleziak
d) kalteak

19. a) tresna
b) zaintza
c) oreka
d) zerga

20. a) Bide batez
b) Edonola ere
c) Dena dela
d) Izan ere

21. a) Haatik
b) Horrela
c) Harrezkero
d) Halaber

22. a) berrituta
b) estututa
c) erroldatuta
d) zabalduta

23. a) ihardetsi
b) gaitzetsi
c) lehenetsi
d) salbuetsi

24. a) asmoa
b) eskaria
c) ikurra
d) oztopoa

25. a) auzian
b) indarrean
c) aurkibidean
d) bidean

GOGORATU:
ERANTZUNAK, ERANTZUN ORRIAN